

XEDAPENA, 2024KO MARTXOAREN 1EKOA, OSATEK-EKO ZUZENDARI GERENTEARENA, KALITATEZKO TEKNIKARI KATEGORIAN LANGILE FINKO IZATEKO IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ONARTZEN DUENA, PUNTUAZIOAREN ARABERA.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 28ko xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak arautu ziren, OSATEKen aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdi berezi baten bidez, oposizio-lehiaketa bidez.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko azaroaren 30eko xedapen baten bidez, onartu egin ziren kalitatezko teknikariaren kategorian lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikokoak, oposizio-lehiaketa bidez.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2023ko irailaren 18ko xedapen baten bidez, onartu egin zen lan-kontratu finkodun langile izateko hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda, kalitatezko teknikariaren kategorian, oposizio-lehiaketa bidez.

Oposizio-fasea amaituta, zuzendari gerenteak prozesuan parte hartu dutenen behin-behineko zerrenda onartu du, puntuazioaren arabera.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Lan-kontratuko langile finkoa izateko, oposizioaldiko izangaien behin-behineko zerrenda onartzea, puntuazioaren arabera, kalitatezko teknikariaren kategorian. Zerrenda hori xedapen honen eranskinean dago.

Bigarrena: Xedapen hau OSATEKen webgunean (www.osakidetza.euskadi.eus/2022ko-enplegu-eskaintza/webosk00-otkcon/eu/) eta Campo&Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: erreklamazioak aurkezteko 5 egun balioduneko epea ematea. OSATEKeko zuzendari kudeatzaileari bidaliko zaio idazkia, helbide elektronikoa honetara: op-tc6552osatek@campo-ochandiano.com edo posta arruntez, helbide honetara: OSATEK, Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua, Bizkaia Plaza Eraikina, 48011 Bilbao.

Bilbon, 2024ko martxoaren 1ean

Zuzendari gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz